

Elosegi eta Galíndez-en jokabideak aurrez-aurre

Deia, 1990-11-19.

Gerta berria den Joseba Elosegiren heriotzak sortarazi ditu, ongi merezi bezala, artikuloak prentsan eta elkarrizketa franko irratietan. Josebaren irudia goraipatzeko abiapuntuak asko izan daitezkenez, erabili dira hainbat; baina ETB-ko Luis Mendizabalek jarri dit telefonoz, bertsogintzan moduko puntu bat: "Aizu, zeuk erabiliko al zenuke gure mahai borobilean Josebaren gizalegeari dagokion gure historiako beste pertsonaia baten esenplua?".

Historia luzea du gure herriak, baina ez dugu ongi ezagutzen. Bestalde, konparagarri diren bizitzak?

Galdera-marka muinetan dudala geratu naiz, eta ez derrigorrez neri ezarri zaidalako, galdera hori sujerentzi gisa bota bait zait, eta aukera nezakeen beste bat...

Halere, galdera-marka hor?

Segur naiz galdera egin didana ni neu baino lasaiago geratu dela! Eta, bapatean!... Ez da bi aste Elosegi izena duen beste lagun batek, Albertok, idatzi berri-berria duen liburu bat eskaini didala: El verdadero Galíndez. Biografia zehatz eta landu bat da, benetan interes handikoa eta neuk hiruzpalau egunetan irakurri dudana... Entzungo zenuen noizpait, irakurle, edo irakurri, behintzat, Jesús de Galíndez-en izena: Santo Domingoko Trujillo diktadorearen esbirroek 1956an New Yorkeko Metro-sarrera batetan bahitu eta Karibeko irlara egazkinez eraman eta gero bertan heriotz ikaragarria jasan hasi zioten euskaldun bat.

"Joseba Elosegi ez du inork asasinatu!", esango didazu.

Ez, egia da; baina utzi nazazu laburki kontatzen neronek ezagutu nuen: Jesús de Galíndez nor zen eta zer egin zuen:

Amurriotarra jaiotzez, Madrilen Lege ikasketak amaitu berri zen 1936ko gerra sortu zenean. Berehala egin zen bertako Euskal Etxean biltzen ziren ikasleen buru, bataloi bat eratu nahian. Han heltzen da Manuel Irujo jauna euskaldunon izenean Errepublikako gobernuaren Ministro izendatua, eta honek hartzen du bere kontseilari juridiko bezala; beste gazte euskaldunak berekin dituela hasten da Galíndez, anarkia hartan! oso aise hiltzen zituzten pertsonak, asko euskaldunak ziren mojak, fraile eta apaizak, legez salbatzen; gero idatziko zuen, beste liburu askoren artean, "Los vascos en el Madrid sitiado" dago horiek kontatzeko. Madriletik, Bartzelonara, eta hemen Eusko Jaurlaritzaren aginduetara jarri, Milicias Vascas-etan frontera joan eta arrisku handietako batailetan ibili ziren, Galíndez buru; Navalcarneroko porrota eta gero Bobadilla del Norten Molaren aurka gogorik eutsi zioten, oraindik gogoan du historiak Gerra galdu zenean, dagoeneko Kapitain zen, Frantzira pasa zen mendiz hemendik Ameriketaratu zenean, Santo Domingon geratu zen beste euskaldun batzurekin, eta hemen zegoela Agirre Lehendakariak Eusko Jaurlaritzako Ordezkariz izendatu zuen. Hango euskaldunei laguntzen zien bitartean: bertoko Unibertsitatean Zuzenbide klaseak

ematen zituen eta Lege-liburuak idatzi zituen, batez ere bere Araba eta Euskadi gai zituela: "El derecho vasco", "Raíces vascas en la doctrina del P. Vitoria"; "Un siglo de lucha por la libertad vasca", "Semejanza entre los Fueros de Ayala y Bizcaya", "Los Vascos en la lucha por la libertad de América", eta beste asko.

Dagoeneko ongi ikusi eta neurritu zuen diktadura haren mekanismoa.

Lan arriskutsua zen oso egin zuen bilaketa eta notak hartzea eta paper batzuen kopiak ateratzea, eta laister New York-era irten zen, Agirre Lehendakariaren asesore juridiko bezala, Nazio Batuetan eta abar, eta 1945an alemanak gerra galdu ondoren, Agirrearekin Parisera joan nahi izan zuenean honek eskatu zion, beharrezkoa zela New Yorken, eta Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaritza bezala gera zedin. Langile porrokatua zenez gero, ingelesa ongi ikasi eta Columbia University famatuan jarri zen, batetik Lege-doktoregoa egiten, eta bestetik Iberoamerikako Kultura irakasten.

Doktoregotzarako proposatu eta onartu zioten gaia zera zen: "Trujillo-ren Aroa", gazteleraz: "La Era de Trujillo".

Lan hau oso arriskutsua zen. Trujillok, bere politikaren bidean zurka egiten zion asko hilarazi zuen, batzu Estatu Batuetan bertan. Hasi zitzaizkion dagoeneko mehatxuak botatzen, eta tesia aurkezteko ordua hurbiltzen zihoan bezala joan zen keinada larriak jasotzen; bisita arraroak ere izan zituen. Arduratu zen, Galíndez! Neronek ikusi nuen oso arduratua 1954an, lagundu ere egin nion behin bere joan-etorriko metroan. Baina ez zuen inoiz diktadorearen aurka egiten ari zen salaketa idatzi eta nabarmen hura egiteari uko egin nahi beretzat, Franco-ren antzeko beste bati, Trujillori, diktadura guztioi, nolabait diktadore unibertsalari, erakutsi nahi zion bere zoribeltzeko erretratua! Joseba Elosegik sua bezala!

Hala, textoa ingelesez eta gazteleraz, bietara egina zegoenean, bada ez bada toki askotara zabaldu zuen (Chilen argitaratu zen lehen aldiz "La Era de Trujillo" alea). Baina ordurako New York-eko Metro zuloan ziztada batez moteldu eta egazkinez Santo Domingora eramanean eta han, ziur nola hil zuten ez badakigu ere, badirudi lehendabizi liburua jan arazi ziola diktadoreak gero barrabilak eta mingaina moztuaz amaitu zutela berarekin, edonork pentsa dezaken modu izugarrian. Joseba Elosegik ez zuten honela hil, otoi!, baina Galíndezek mundu-aurreko salaketa egin zuen antzera bota zen pertsonalki sutan munduan aurrean Gernikako sute izugarri haren imagina diktadoreari begien aurrean pasatzeko. Ezberdinak dira moduak, baina jokabide berdintsua izan zituzten; frentekoak, Euskadiren aldeko jarrera erabakia. Askatasunaren aldeko eta diktadoreen aurkako borroka beren bizia eskaintzeraino arriskatzeak elkartzen ditu.

Nik uste, ez dela gehiegizkoa nire aldetik Galíndez eta Elosegiren arteko paralelo hau egitea.

Gehiago jakin nahi baduzu, irakurle, irakurri zazu Alberto Elosegik idatzi berria duen liburua: "El Verdadero Galíndez" eta zerorrek aterako dituzu ondorioak.